

Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) Batzorde Eragileak honako hauxe adierazi nahi du 2013ko otsailaren 15ean Ministroen Kontseiluak jakinarazitako Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunerako Legearen Aurreproiektuko edukari buruz:

1.- Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioko Herri Administrazioetako estatu-idazkariak aurreproiektua bidali dion arte (sarrera erregistroa 2013ko otsailaren 20a), EUDELe ez du modu ofizialean jakin zein diren Estatuko gobernuak abian jarri nahi duen eraldaketa garrantzitsuko oinarritzko lerroak.

2.- Toki-erlaketarako prozesu hori defizit publikoari eusteko testuinguruan kokatu nahi dute, baina ahaztu egin zaie Euskadiko udalek eragin gutxi izan dutela Estatuko finantza publikoen egoera txarrean. Oro har, Euskadiko udalen finantza publikoen egoera onbideratuta dago.

3.- Proposatutako erlaketaren ondorioz, aldaketa kualitatiboa egin beharko litzateke gaur arteko toki-gobernuaren sisteman. Horrez gain, partekatu ezin diren oinarrietan ere oinarritzen da; esate baterako, ustezko eraginkortasuna bilatzea (hala ez bada ere eta zerbitzuko "kostu estandarren" okerreko nozioaren bidez egituratzen bada ere), eta, horren ondorioz, Euskadiko udalek eskaintako zerbitzuen kalitatea jaistea.

4.- Inolako zalantzarik gabe, erlaketaren horren helburua ez da euren baliabide ekonomiko zein finantzarioak ondo kudeatu eta euren herritarrei zerbitzu publiko egokiak ematen dizkieten udalen premiei eta arazoei aurre egitea. Erlaketa eratzeke orduan, okerreko oinarria hartu da kontuan, hau da, udalek berez ez dituztela euren eginkizunak betetzen, ez dutela behar den moduko arretarik eta euren eskumenekoak ez diren zerbitzuak ematen dituztela. Ikuspegia erabat okerra da Euskadiko udalei dagokienez.

5.- Erlaketa horren bitartez lortu nahi dituzten oinarritzko hiru helburuak kontuan hartuta (eskumenak berrantolatzea, antolaera arrazionalizatzea eta finantzen zein aurrekontuen kontrola bermatzea), bat bera ere ezin da bete-betean ezarri Euskadiko tokian tokiko errealitatean. Are gehiago, bereizgabe ezarri gero, gaur egungo euskal udalgintzaren eta biztanleei ematen dizkien zerbitzuen eraginkortasunak (ondo ulertuta) eta kalitate instituzionalak behera egingo lukete erabat.

6.- "Eskumenen berrantolaketari" dagokionez, ALRSALek eskumenak argitzea du helburu, baina ez du halakorik egiten. Izan ere, argi eta garbi dago udalek zenbait arlotan dituzten eskumen-erantzukizunak kentzea dela helburua. Eskumenen klausula orokorra murriztuko da, berezko eskumenak "moztuko" dira, eskumenen "eskuordetza" orokortuko da eta "berezkoak ez diren" eskumenak kenduko dira. Eredu hori, beraz, Toki Autonomiaren Gutun Europarreko printzipioetatik urrun egongo da. Gainera, bidez batez, esan beharra dago gutun hori ez dutela behin ere aipatzen testuan bertan. Deigarria benetan.

7.- Ez dago inolaz ere onartzerik Estatuko gobernuak zerbitzu bakoitzaren "kostu estandarri" buruz aldebakartasunez hartutako erabakiagatik zenbait udali euren benetako eskumenak "kendu" nahi izatea, zerbitzugintza bera beste instantzia batzuen esku uztea edo zenbait zerbitzuren pribatizazioa sustatzea. Oso larria da erlaketaren arkitektura guztia (eskumenen eta antolaeraren arloan) "kostu estandarren" kontzeptu horren inguruan egituratzea. Ez da

inondik inora zerbitzuen kalitatea kontuan hartu, herritarrek kalitate txarragoko toki-prestazio publikoak jasoko dituzte eta ez dago halakorik onartzerik.

8.- Era berean, ez gatoz bat ALRSALen beste asmo batekin, mankomunitateak nahiz partzuergoak aurrez aurre jartzen dituelako kolokan. Izan ere, gure ustez, bitarteko bi toki-erakunde horiek zeresan handia dute Euskadiko kalitateko toki-zerbitzugintza publikoan.

9.- Antolakuntzako egiturak arrazionalizatzean, diputazio probintzialak indartzea da helburu nagusia. Berez, Euskadiko sistema instituzionalean ez dago helburu hori inolaz ere betetzerik, bere ezaugarri bereizgarriak kontuan hartuz gero. Hori dela eta, ez du benetako ezarpenik.

10.- Zeharo desados gaude 5.000 biztanle baino gutxiagoko udaletarako jarduketa-sistemarekin, udal-autonomia urratzen delako eta atzeraeragina ematen zaielako jarduketaren arrazoiei. Gure iritziz, benetan larria da hori egitea.

11.- EUDL-en ustez, ALRSALen aurreikusitako eta jarduera politikoarekin lotutako arrazionalizazio-neurriek udal-autonomiaren printzipioa urratzen dute autoantolakuntzarako ahalmenetan eragina daukan guztian.

Bere erantzukizun politikoaren erabileran, udal-gobernuak berak inposatu beharreko erabakia da behin-behineko langileen edo arduraldi eskusiboko kargu publikoen ordainsariak mugatzea. Horrez gain, oso sakon hausnartu eta adostu beharreko erabakia ere izango da, eta, bertan, eskaintako zerbitzuen kalitatearen kalterako izan daitezkeen irizpide ekonomizista hutsen gainetik, behar bezala babestu beharko da herritar guztiek daukaten eskubidea, toki-gobernua hurbila izan dadin, zuzenean hautatua izan dadin eta euren premiei aurre egin diezaien.

12.- EUDL-en iritziz, ez dago langile publikoen ordainsariak Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen bitartez mugatzerik, proposamen horrek udalek langileen arloan dauzkaten oinarritzko eskumenak urratzen dituelako eta langile publikoentzako ordainsarien sistema homogeneoa ezarri nahi duelako errealitateak erabat heterogeneoak direnean. Era berean, oso kezagarria ere bada; izan ere, murriztapen horrek tokian tokiko negoziaketa kolektiboan ere izango luke eragina, azken hamarkadotan Euskadin adostasun handiak lortu badira ere.

13.- Egoera ekonomiko zein finantzarioaren eta aurrekontuen kontrola bermatzeko helburuari dagokionez, adierazi behar dugu Kontzertu ekonomikoaren ondorioz sortutako araubide ekonomiko eta finantzarioaren arabera babes berezia ezarri beharra dagoela arlo horretan eta Euskadiko udaletan izango dituen ondorioak hartu beharko direla kontuan. Horrela, bada, arlo horren eta Euskadiko instituzioen berezko eskumenen artean dauden lotura estuei erreparatuz gero, Espainiako Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarriaren bidez aitortutako araubide berezia zehatz-mehatz bete dadila eskatu beharra dago.

14.- Beraz, lotura material horien arabera, agerikoa da Euskadiko instituzioek eurek arautu eta betearazi behar dituztela ALRSALen bertan aurreikusitako arauzko faktoreak zein betearazleak (jarduketa-araubidea).

15.- Ez dago inolaz ere onartzerik ALRSALen ondorioz 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera inolako indarririk gabe geratzea administrazio publikoek eta toki-erakundeek sinatutako hitzarmen guztiak, finantzazioarekin zerikusia dutenean eta euren helburua LBRLko 25. eta 27. artikuluetan adierazten ez diren eskumenak direnean. Aurreikuspen horrek ez du inondik inora kontuan hartu Euskadiko udalen “berezko eskumenen” artean ere badaudela legeria autonomikoaren edo kasuan-kasuan onartutako foru-arauen ondorioz sortutako eskumenak. Beraz, esan gabe doa aurreikuspen horrek eskumen autonomikoak urratzen dituela eta aurrez aurreko kaltea egiten diola toki-autonomiari.

16.- Amaitzeko, adierazitakoaren arabera, nabarmendu beharra dago aurreproiektu honek ez dituela inolaz ere Euskadiko udalgintzaren eta gainerako toki-erakundeen ezaugarri bereizgarriak kontuan hartzen, neurri handi batean ez dagoela Euskadiko errealitatean ezartzerik eta, are larriagoa, ez dituela inondik inora ezagutzen Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioen zein eskumenen errealitatea eta errealitate ekonomiko zein finantzarioa. Izan ere, ez du foru-araubidea babesteko klausularik aurreikusten, tokian tokiko eta aurrekontuen egonkortasunerako indarreko legerian egiten den bezala.